



EBAZPENA, 2020KO EKAINAREN 9KOA, JUSTIZIA ADMINISTRAZIOKO ZUZENDARIAREN A, ZEINAZ BEHIN-BEHINEAN EBAZTEN BAITA HIZKUNTZAGATIK EDO EGINKIZUNENGATIK BEREZITURIK DAUDEN LANPOSTUAK BETETZEKO BERARIAZKO LEHIAKETA, PROZESU- ETA ADMINISTRAZIO-KUDEAKETAKO, PROZESU- ETA ADMINISTRAZIO-IZAPIDETZAKO ETA LAGUNTZA JUDIZIALEKO KIDEGOETARAKO, LAN ETA JUSTIZIAKO SAILBURUAREN 2019KO ABENDUAREN 5EKO EBAZPENEZ DEITUA.

AURREKARIAK

- 1.- Lan eta Justiziako sailburuaren 2019ko abenduaren 5eko Aginduaren bidez, berariazko lehiaketa baterako deialdia egin zen Prozesu eta Administrazio Kudeaketako, Prozesu eta Administrazio Izapidetzako eta Laguntza Judizialeko kidegoetarako, eginkizunengatik edo hizkuntzagatik bereziturik dauden lanpostuak betetzeko.
- 2.- Eskerak aurkezteko epea bukatuta, eta Balioespen Batzordea bildu ondoren, behin-behineko ebazpena ematen da, bat etorritik deialdiaren 8. artikuluekin.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehena.- Lan eta Justizia Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 11ko 84/2017 Dekretua, zeinaren 12. artikulua Justizia Administrazioiko Zuzendaritzak Justizia Administrazioaren zerbitzuko langileen arloan dituen eskumenak jasotzen baititu.

Bigarrena.- Lan eta Justiziako sailburuaren 2019ko abenduaren 5eko Aginduaren 8. artikulua dioenari jarraikiz, deialdia Justizia Administrazioiko zuzendariak ebatziko du behin-behinean.

Hori dela eta,

EBAZTEN DUT

Lehena.- Argitara ematea behin-behineko ebazpena, eginkizunengatik edo hizkuntzagatik bereziturik dauden lanpostuak betetzeko berariazko lehiaketa baterako deialdiarena, Euskal





Autonomia Erkidegoan Prozesu eta Administrazio Kudeaketako, Prozesu eta Administrazio Izapidetzako eta Laguntza Judizialeko kidegoetako eskakizun bereziko lanpostuak betetzeko dena (Deialdia Lan eta Justiziako sailburuaren 2019ko abenduaren 5eko Aginduaren bidez egin zen). Aginduren 8. artikulua dioenari jarraikiz, zerrenda hauek www.euskadi.eus-en argitaratuko dira:

- Onartuen eta baztertuen zerrenda, esleitutako puntuazioa adierazita, Lan eta Justiziako sailburuaren 2019ko abenduaren 5eko Aginduaren 5. artikuluan ezarritako baremoaren arabera.
- Behin-behineko destinoa lortu duten langileen zerrenda, esleitutako lanpostua adierazita.

Bigarrena.- Erreklamazioetarako epe bat irekitzea, 2020ko ekainaren 9tik 22ra, biak barne. Erreklamazioak Justizia Administrazioako zuzendariari aurkeztu behar zaizkio, euskadi.eus-en bidez.

Gasteizen, 2020ko ekainaren 9an

María Isabel Gabriel Bellido

JUSTIZIA ADMINISTRAZIOKO ZUZENDARIA